

## Gimenok euskara baztertu du Lanbide Heziketan

Nafarroako Hezkuntza kontseilariak martxoaren 26an aurkeztu zuen Lanbide Heziketako eskaintza berria. Euskara berriz ere zokoratua utzi dute, horrela, erdi mailako 12 ziklo berrien artean, bakarra izanen da euskaraz, Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak izenekoak Altsasuko ikastetxean. Bestalde, goi mailako 10 ziklo berrietatik, Egokitzapen Fisikoa, "erdia" edo emanen dute euskaraz, beste erdia ingelesez izanen baita. Azkenik, Berako Institutuan Balio Anitzeko ziklo berezia abian jarriko dute.

Datuek erakusten dute desoreka handia, bakarrik ziklo berrien % 10 euskaraz jarriko delako. Ez dute kontuan hartu DBHn euskaraz ikasten dutenen proportzioa, eta are gutxiago euskaldun gehienak Iruñerrian bizi direla eta, era berean, bertako eskaintza urria ez dela ia zabaldu. Zenbait lanbide familietan ez da euskaraz eskaintzen ezta ziklo bat ere: sukaldaritzan, estetika-ileapaingintzan, etab. Bidenabar, Lizarran eta Tafallako ikastetxeetan ez da deus ere ematen euskaraz.

Albiz, PAI moduko ingeleseko eskaintza handitu da, goi mailako 10 ziklo berrietatik 7 izanen dira gaztelaniaz eta ingelesez, % 70. PAIren inguruan iritzi kritikoak ugaritzen ari direnean, behartu nahi dituzte familiak ikasleak programa horretan eskolatzera, gero aukera izan dezaten ziklo horietan izena emateko. Bestalde, beste etapetan sortu den lan prekarietatea hedatuko da Lanbide Heziketan, ingeleseko profileko lanpostuak ezin baitira atera oposizioetara. Beste behin ere, ingelesez ikasketak ezartzen dira inongo aurreikuspenik gabe, ez baitago perfila betetzen duen irakasle nahikorik.

Ingeleseko eskaintzan, oso bitxia da Egokitzapen Fisikoa eta, Kirol Heziketa eta Animazioa zikloak erdi ingelesez ematea, ez baitago Nafarroako kiroldegietan eta gimnasioetan inongo eskaririk igeriketa, mantentze gimnasia edo zumba bezalako ikastaroak ingelesez emateko. Berdin gertatzen da Baso Kudeaketaren zikloarekin, batez ere kontuan hartuta basogintza gehien garaturik dagoela Nafarroa Garaiko eremurik euskaldunenean.

Sasi-ingleseko eskaintza zabaltzen den bitartean, Departamentuak jarraitzen du bete gabe Hezkuntza itunean sinatutakoa: Kontserbatorioan, Arte Eskolan, Helduen Irakaskuntzan eta Kirol Ikasketetan euskarazko eskaintzarekin hastekoa. Gogora dezagun Ituna bete behar dutela, haren betetzea Foru Lege bilakatu zelako aurreko abuztuan. Azkenik, galdera egiten dugu: non dago Euskarabidea bidegabekeria hau salatzeko eta zuzentzeko?

---

## Gimeno margina al euskera en la Formación Profesional

El consejero navarro de Educación presentó el pasado 26 de marzo la nueva oferta de Formación Profesional, en ella el euskera ha vuelto a quedar relegado, de manera que, entre los 12 nuevos ciclos de grado medio, únicamente habrá uno en euskera, Sistemas Microinformáticos y Redes en Altsasu. Además, de los 10 nuevos ciclos de grado superior, solo en el de Acondicionamiento Físico, se impartirá "la mitad" de las clases en euskera, ya que la otra mitad será en inglés. Por último, en el Instituto de Bera se pondrá en marcha un ciclo especial de Auxiliar Polivalente.

Los datos muestran un gran desequilibrio, ya que solo el 10% de los nuevos ciclos se ofertarán en euskera. No han tenido en cuenta la proporción de quienes estudian en euskera en la ESO, y menos aún que la mayoría de las y los euskaldunes viven en Iruñerria y, a su vez, que la escasa oferta local apenas se ha extendido. En algunas familias profesionales no se ofrece en euskera ni siquiera un ciclo: cocina, peluquería-estética, etc. Así mismo, en los centros de Lizarra y Tafalla no se puede estudiar nada en euskera.

En cambio, ha aumentado la oferta de inglés tipo PAI, de los 10 nuevos ciclos de grado superior, 7 serán en castellano e inglés, el 70%. Cuando están aumentando las opiniones críticas respecto al PAI, quieren obligar a las familias a escolarizar al alumnado en este programa, para que luego puedan inscribirse en estos ciclos. Por otra parte, se extenderá la precariedad laboral, que se ha creado en otras etapas, en la Formación Profesional, ya que los puestos con perfil de inglés no pueden sacarse a las oposiciones. Una vez más se implantan estudios en formato bilingüe sin planificación, puesto que no hay personal suficiente con perfil C1 de inglés.

En la oferta de inglés, es muy curioso que los ciclos de Acondicionamiento Físico y, Enseñanza y Animación Deportiva, se semiimpartan en inglés, ya que no hay ninguna demanda en los polideportivos y gimnasios de Nafarroa para impartir natación, gimnasia de mantenimiento o zumba en inglés. Lo mismo ocurre con el ciclo de Gestión Forestal, sobre todo, teniendo en cuenta que la silvicultura está más desarrollada en la zona más euskaldun de Nafarroa.

Mientras se amplía la oferta pseudoinglesa, el Departamento sigue sin cumplir lo firmado en el Pacto Educativo, de dar inicio a la oferta en euskera en Conservatorios, Escuela de Arte y Enseñanza de Adultos. Recordemos que deben cumplir el Pacto, puesto que su cumplimiento se convirtió en Ley Foral el pasado agosto.

Por último, nos preguntamos: ¿dónde está Euskarabidea para denunciar y corregir esta injusticia?

[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eu